

LABORAL KUTXA TALDEAREN INGURUMEN-POLITIKA

INGURUMEN-POLITIKA

Ezarria duen Ingurumena Kudeatzeko Sistemari esker, ingurumenari buruzko legeak eta arlo horretan sinatutako bestelako borondatezko konpromisoak zorrotz betez garatu dezake jarduna LABORAL Kutxak. Sistema horren helburua etengabeko hobekuntza da, ingurumen-arloko jarduketari, kutsaduraren prebentzioari eta ingurumena zaintzeari dagokienez.

Konpromiso horiek betetzearren, honako jardunbide hauek ezarri dira lehentasunezkoztat:

- Langile guztiak kontzientziatzea eta motibatzea prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bitartez, ingurumenari dagozkion jardunbide arduratsuetan aktiboki inplika daitezten.
- Ahalik eta hondakin gutxien sortzea, ahalik eta hondakin gehien birziklatzea, natur baliabideen kontsumoa murriztea eta berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzea. Horretarako, baliabideen erabilera minimizatzeke eta efizientzia optimizatzeke beharrezkoak diren barne-prozesuak zehaztuko ditugu.
- Ahal den heinean, Ingurumena Kudeatzeko Sistemari aplikatzen diren ingurumena kudeatzeko irizpide eta jarduketak LABORAL Kutxaren lantoki guztietara iritsaraztea.
- Gure gainerako interes-taldeekin elkarlanean aritzea ingurumen-zaintzari bultzada eta laguntza ematearren eta, batik bat, ingurumen-arloko irizpide eta arauak txertatuta enpresa hornitzaileekin eta azpikontratatistekin ditugun harremanetan.

LABORAL Kutxaren Ingurumen Politika hori eskuragarri egongo da jende ororentzat, Entitatearen web-orrian.

Politikaren ezaugarriak

Bertsioa	Data	Organoa	Arrazoia	Aldaketak
1	2019ko ekaina	Zuzendaritza Nagusia	Hasierako onespena	
2	2023/09/29	K. Errektorea	ZKD zerbitzua	